

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA

1. Bi zuzen paralelo planokideak dira.

- a) Egia.
- b) Gezurra.

2. Plano horizontalarekiko elkarzuta den zuzenki baten proiektzio bertikalaren magnitudea zuzenkiaren moduluarekin bat dator.

- a) Egia.
- b) Gezurra.

3. Zuzen bat plano batekiko elkarzuta bada:

- a) Plano horretako zuzen guztiekiko elkarzuta da.
- b) Plano horren eta zuzenarekiko paraleloak diren plano guztien ebakidura zuzenekiko elkarzuta da.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

4. Plano bat definitzeko zenbat puntu dira nahikoa?

- a) Hiru baino gehiago.
- b) Hiru.
- c) Bi.

5. Zenbat planok betetzen dituzte bi ezaugarri hauek batera? Beste plano batekiko elkarzuta izatea eta zuzen konkretu bat bere baitan izatea.

- a) Batek.
- b) Batek ere ez.
- c) Infinituk.

6. Bi planok hirugarren plano batekin dituzten ebakidurak paraleloak badira, planoak paraleloak dira.

- a) Ez beti.
- b) Beti, baldin eta planoak plano bertikalarekiko (XOZ) paraleloak badira.
- c) Beti, baldin eta planoak plano horizontalarekiko (XOY) paraleloak badira.
- d) Beti, baldin eta planoak perfileko planoarekiko (YOZ) paraleloak badira.
- e) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- f) Beti.

7. Plano bat eta zuzen bat emanik:

- a) Beti existitzen da planoarekiko paraleloa izanik zuzena bere baitan duen plano bat.
- b) Inoiz ez da existitzen planoarekiko paraleloa izanik zuzena bere baitan duen plano bat.
- c) Planoarekiko paraleloa izanik, zuzena bere baitan duen plano bat existitzen da, zuzenak baldintza batzuk betetzen dituenean.



8. Ondoko zuzena $\begin{cases} x = 3 \\ y = 3 \end{cases}$:

- a) OX ardatzarekiko paraleloa da.
- b) OZ ardatzarekiko paraleloa da.
- c) OX ardatzarekiko elkarzuta da.
- d) Bere puntuen kota 3 da.

9. Ondoko zuzena $\begin{cases} 2x + 3y - z = 1 \\ z = 2 \end{cases}$:

- a) OZ ardatzarekiko paraleloa da.
- b) $z = 2$ planoarekiko paraleloa da.
- c) YOZ planoarekiko elkarzuta da.
- d) YOZ planoarekiko paraleloa da.

10. Kalkulatu $\begin{cases} 2x + y = 2 \\ x - y + 3z = 1 \end{cases}$ zuzenaren eta $x - 13y - 8z + 41 = 0$ planoaren arteko ebaki-puntua.

- a) $\left(\frac{-1}{5}, \frac{12}{5}, \frac{6}{5}\right)$
- b) $\left(\frac{18}{17}, \frac{53}{5}, \frac{-2}{17}\right)$
- c) $\left(\frac{10}{19}, \frac{-23}{19}, \frac{35}{19}\right)$
- d) $\left(\frac{1}{2}, \frac{8}{3}, \frac{-2}{5}\right)$

11. Kalkulatu m parametroaren balioa $\frac{x}{1} = \frac{y-2}{m} = \frac{z+3}{2}$ zuzenak $2x - 4y + 5z = 6$ planoaren arteko ebaki ez dezan.

- a) -2
- b) 3
- c) 0
- d) 2



Emaizak:

1) a

2) a

3) c

4) b

5) c

6) f

7) c

8) b

9) d

10) a

11) b

